

C'est la vie

Joxean Agirre

Bizitzak, diotenez, badu antzik aeronautikarekin: aireratzean (haurtzaroan) eta lurreratzean (zahartzaroan) izaten dira istripurik handienak. Izurriarena, istripua ez, triskantza izan da gure adinekoentzat. Zahar etxeetan bizirik iraun dutenek izuaren estigmaterekin gelditu dira eta kostatu egingo zaie gertatua ahaztea.

Besteok txertoarekin egiten dugu amets. Seguru nago, gauzak ondo bidean, udaberria baino lehen bi txertoak ematen badizkigute, euforia halako batek hartuko digula barrena eta hasiko gara gauez ateratzen eta batzuk goiz aldera arte luzatuko dugula irtenaldia eta egongo dela hor *interim* bat non etxera bidean oraindik konfinatuta edo gutxienez gaueko aisialdiaz gozatzeko aukera-

rik gabe edukiko dituzten gazteekin gurutzatuko garen eta gure burugabekeria aurpegiratzen badigute, "*C'est la vie*" kantatuko diegun, Karlos Zabalaren nobelako zaharrek bezala, eta esango diegun horrela dela bizitza, batzuetan irribarre egiten digula eta besteetan muzin.

Horretara jarrita eta gure euforia axolagabea tarteko, ez nintzateke harrituko kale zurruten bat antolatuko bagenu ere. Ez, ez, kalimotxorik ez genuke edango, gure gau festaren ondoren behingogatik whisky garestiak, armagnac eta koñak frantsesen botilak utziko genituzke lurrean, biharamuneko garbitzaileen harridurarako, eta gaueko ordu inspiratu horietan zehar ez genuke gai txoroe-tan denborarik galduko, izatekotan ere filosoforik mediatikoenek izurriari bu-

ruz egin dituzten iragarpenak aztertuko genituzke gaztetan gai horietan jartzen genuen suhartasun bertsuarekin eta nik Slavoj Zizeken azken lan distiratsuari helduz, gogoeta jakingarriak dituela baina bere azken iragarpena, alegia pandemiak komunismo berrasmatu bati bidea irekitzeko balioko duela, espekulazio hutsa iruditzen zaidala esango nuke eta zentzuzkoagoa begitandu zaizkidala Alain Badiou gure maisu ohiaren zenbait artikulu. Beste batek Aganben aipatuko luke edo Franco Berrardi eta Judith Butler hurrengoak edo Daniel Innerarity etxeko bat ere aipatze-arren, eta horrela joango zaizkigu orduak, edanean eta gogoeta sakonetan, gazteak lo seko dauden bitartean. *C'est la vie*. •

Konspiratzearen plazera

**Nekane
Zinkunegi
Barandiaran**

Lanbroak ezkutatutako bazterrak arakatzen arituko dira, gaurko egunez, hainbat eta hainbat lagun, Emakume* Abertzaleen VIII. Topaketa Feministetan. Egoerak hala behartuta, ez da topagune jendetsurik izango: Hego Euskal Herriko zazpi txokotan bilduko dira hainbat fisikoki, eta gainerakoek telematikoki jarraitzeko aukera izango dute.

Gainera, gaurko zitak urtemuga esanguratsu batekin egiten du bat. Aste honetan bete baitira 43 urte Euskadiko Emakumeen Lehen Topaketak egin zizutenetik. 1977ko abenduaren 8tik 11ra

izan ziren, EHUren Leioako campusean. Sexualitateaz, etxeko zein kanpoko lanaz edota patriarkatuaz hausnartu zuten 3.000 emakumek. Feminismoaren bigarren olatuak eraginda, garaiko euskal gizartea astindu zuten orduko haiek.

Gaur, berriz, harreman kolonialez eztabaidatuko dute. Mugimendu feministak hausnarketa egin duelako, eta bazter pertsonalak eta kolektiboak arakatzeaz gain, berrantolatzen jo nahi duelako. Ditzosozko pandemiak are ikusezinago bilakatu baititu lehen ere itzalean zeuden kolektiboak eta gataz-

kak: zaintzaileak, prekaritatea eta arrakala soziala, xenofobia, indarkeria matxista... Hargatik, egunerokoan zehar katzen gaituzten harreman kolonialei erreparatuko diete gaurko topaketetan.

Feminismoa zerbait bada, horixe delako, deseroso sentitzea. Deserosoa da, interpelatu denarentzat, baina baita praktikatzen duenarentzat ere. Etengabeko hausnarketa eta eztabaida eskatzen ditu, baina hori elkarlanean egiten denean, konspiratzeak ematen duen plazerak hartzen dio gain deserosotasunari. •